



**naiz:**

*Euskarazko  
kulturgintza NAIZ  
hedabidean*

**‘Euskarazko kulturgintzaren  
presentzia hedabideetan’  
ikerketari erantzuna**

## **AURKIBIDEA**

### **1. SAR HITZA**

### **2. IKERKETAREN ASMOAK, DATUAK ETA ONDORIOAK**

- 2.1.** Jatorrizko kezka
- 2.2.** Hautuak eta ibilbidea
- 2.3.** Kulturgileak, oro har, zenbat agertzen dira?
- 2.4.** Euskarazko kulturgileak zenbat agertzen dira?
- 2.5.** Nortzuk agertzen dira?
- 2.6.** Ondorioak

### **3. IKERKETAREN MUGAK ETA AKATSAK**

- 3.1.** Hedabideen hautaketa eta sailkapen nahasgarriak
- 3.2.** Kultur eduki gehiena kanpoan utzi da
- 3.3.** Interpretazio eta ondorio murriztaileak
- 3.4.** Ondorioak

## 1. SAR HITZA

Askok irakurri edo entzungo zenuten lerro-burua: «Euskarazko hedabideek eta elebidunek kultur paisaia ezberdinak irudikatzen dituzte; batzuk trakzionatzaile edo trakzionatzaileago dira, eta beste batzuk [NAIZ tar-tean] galga». NAIZek eta gainontzeko hedabide “elebidunek” «euskal kulturgileak ukatu (edo ia karikatura bihurtu)» omen dituzte eta «kanpoko kulturaren zabaltzaile» omen dira.

Euskarazko kulturgintzaren presentzia mediatikoa ikertu dute Euskal Hedabideen Behategiako kide batzuek, eta ondorio hori plazaratu zuten iazko urriaren 26an, Azpeitian egindako “Sormenean Hezi, Kulturari Bizi” III. Jardunaldietan.

Egia esan, baieztapenak NAIZeko lankideon artean harrabotsa eta sumina sortu zuen, egindako lana ez baita behar bezala jasotzen. Bide batez, kezka ere piztu zuen: aurretik gertatu izan den bezala, aurrerantzean ere “Ikerketa hartan esaten zen bezala...” aipatuko ote da argudio bezala, oinarri zalantza-ezina bailitza? Horrek ez ote gaitu betiko lubaki eta eztabaidetan katramilatuko?

Guk argi dugu: hedabide eta herri gisa ezin gara hor ainguratuta geratu. Hori kontuan izanik, ikerketaren bultzatzaileekin eta egileekin aurrez aurre elkartzeko ginen eta gure desadostasuna agertu genien. Hedabideei aurtengo martxoan egindako aurkezpenean ere egon ginen, eta gure kezkak azaldu genituen. Behin hala eginda, euskal herritarrekin eta gure komunitatearekin gure iritzia partekatu nahi dugu.

Horretarako, bi atal nagusitan banatu dugu idatzi hau. Batetik, ikerketaren asmoak, datuak eta ondorioak aurkeztuko ditugu. Bestetik, gure ustez ikerketa horrek dituen mugak eta akatsak azalduko ditugu.

## 2. IKERKETAREN ASMOAK, DATUAK ETA ONDORIOAK

Nondik atera dituzte halako ondorioak? Hori azaltzeko asmoz, atal honetan ikerketa horren nondik norakoak errepasatuko ditugu. Zehazki, ikerketaren motibazioa, egindako hautuak, emandako datuak eta ateratako ondorioak xehatuko ditugu.

### 2.1. JATORRIZKO KEZKA

Hedabideei martxoan egindako aurkezpenean azaldu zuten, ikerketa hau ez da hutsetik abiatzen. Zehazki, Kultur Sorkuntzaren Transmisioa Lantaldeak bultzatu du. Gotzon Barandiaran da sustatzaileetako bat, eta hark eman zuen lantaldearen kezken eta ekimenen berri.

Barandiaranek azaldu zuenez, Kultur Sorkuntzaren Transmisioa Lantaldea 2019an eratu zuten. Euskarazko kulturgintzaren transmisio ezak kezkatu, hainbat eragile elkartzen hasi ziren eta elkarlanerako espazio bat sortzeko beharra sumatu zuten. Hizkuntzaren normalizazioa eta kulturgintza

eskutik garatu beharko direla ulertuta, hainbat gogoeta egin zituzten eta «euskal kulturzaleak sortzea» kokatu zuten helburu nagusitzat.

Horretarako, lau ardatz nagusi identifikatu zituzten: sorkuntza, plazak, hedabideak eta transmisioa. Horien artean, Barandiaranen iritziz, transmisioa dago egoerarik larrienean: «Gure abiapuntua da euskarazko kultur-gintzaren transmisioa ez dagoela bermatuta; ez hezkuntzan, ez hezkuntza ez arautuan, ez hedabideetan, ezta etxe giroan ere. Eta orain, inguru digi-talean eta sare sozialetan ere ez dago bermatuta».

Hori kontuan izanik, sortu zirenez geroztik, transmisiorako «kanal guztiak» aztertzea izan da beraien asmoa, esparru ezberdinak ikertuz eta proposamenak eginez. Bide horretan, hainbat ekimen egin dituzte: Hezkuntza Le-geari ekarpena egin, hezkuntza ez arauturako proposamenak plazaratu, jardunaldiak antolatu...

Tartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza bat baliatuz, transmisioan hedabideek duten papera aztertzeko ikerketa bat bultzatu dute. Euskal Hedabideen Behategiari eta EHUko Nor ikerketa taldeari es-kaini zieten hala egitea, eta hauek onartu egin zuten. Horrela, bertako ki-de diren Libe Mimenza, Naroa Burreso eta Ane Martinezek 'Euskarazko kultur-gintzaren presentzia hedabideetan' ikerketa osatu dute. Horixe da aipatutako jardunaldietan eta bestelako foroetan aurkeztu dutena, eta guk idatzi honetan hizpide duguna.

## 2.2. HAUTUAK ETA IBILBIDEA

Ikerketa honen bitartez, «euskarazko kultur-gintzaren presentzia mediati-koa» aztertu dute. Euskal kultur-gileak «euskarazko kultur-gile» bezala defi-nituta, bi galdera nagusi planteatu dituzte: «Euskarazko kultur-gileak zen-bat agertzen dira? Nortzuk agertzen dira?».

Dena lantzea ezinezkoa denez, ikergaia mugatu egin behar izaten da. Ka-su honetan, erabiltzaileen ohitura aldaketak direla medio, «hedabide digi-talean oinarritzea erabaki da, komunikabideen webguneak arakatuz». Zehazki, webguneetan 2023an "Kultura" atalean argitaratutako edukiak aztertu dira, bai euskarazkoak, bai gaztelaniazkoak. Horren baitan, tes-tuen ekoizpena soilik behatu da.

Behin irizpideak finkatuta, Euskal Herriko hedabideen artetik hamaika he-dabidez osatutako lagin bat aukeratu da, audientzia, zabalpen geografi-koa eta hizkuntza aintzat hartuta: Berria, Argia, Alea, Anboto, Goiena, Ka-zeta, NAIZ, El Correo, El Diario Vasco, Noticias de Navarra eta EITB. Lehen seiak "euskarazkoak" bezala sailkatu dira; hurrengo bostak (NAIZ barne) "elebidunak / gaztelaniazkoak" kategoriapean. Hedabide elebidunen ka-suan, "eus" eta "es" atala bereizi dituzte. Lehenengoan euskarazko ekoiz-pena aztertu dute, bigarrengoan gaztelaniaz egindakoa.

Azkenik, behin ikergaia zedarrituta, kultur-gileen identifikazioan eta datuen galbahetzean adimen artifiziala izan dute bidelagun. Horretarako, Elhuya-rreko Orai adimen artifizialeko zentroarekin aritu dira elkarlanean.


Oinarri horren gainean, azterketaren hiru bertsio aurkeztu dituzte: urrikoa, azarokoa eta abendukoa. Aldagaiak eta datuak guztietan berdinak badira ere, azarokoa eta abendukoa zenbait aldaketa egin dituzte. Zehatz-mehatz, grafiko batzuk ordeztu, datuak interpretatzeko zenbait testu eta oin-ohar gehitu eta ondorioetan moldaketa batzuk egin dituzte.

### 2.3. KULTURGILEAK, ORO HAR, ZENBAT AGERTZEN DIRA?

Ikerketan 24.246 kultur eduki identifikatu dituzte; 8.512 euskaraz eta 15.736 gaztelaniaz. Eduki horietan, berriz, behin baino gehiagotan ateratzen diren Euskal Herriko 5.637 kultur gile identifikatu dituzte. Horien artean, sailkapena egin dute: hizkuntzaren arabera (euskara hutsean, euskara + erdaretan, erdaretan, hizkuntzarik gabe) eta diziplinaren arabera (antzerkia, arte plastikoak, bertsolaritza, dantza, literatura, musika, zinema/ikus-entzunezkoak eta besteak).

Hortik abiatuta, aipatutako kultur gileak zenbat agertzen diren aztertu dute aurrena. Datuak prozesatu ostean, hainbat ondorio atera dituzte. Lehenik eta behin, Berrian agertzen dira Euskal Herriko kultur gile gehien (2.973). Atzetik Noticias de Navarra (1954 gaztelarazko edukietan, 806 euskarazkoetan), El Correo (1755, dena gaztelaraz 3 edukitan salbu) eta El Diario Vasco daude (1755 gaztelarazkoetan, 1583 euskarazkoetan). Gero NAIZ dago (euskaraz 1480, gaztelaniaz 1052). Horren ostean, berriz, EITB (euskaraz 1110, 1149 gaztelaniaz). Atzerago beste hedabideak.

Kultur gileen agerpenetan ere (49.202 guztira) ia berdin mantentzen da hurrenkera: Berria, Noticias de Navarra, Diario Vasco eta El Correo. Kasu honetan ere, NAIZ eta EITB atzerago daude, ia berdinduta beraien artean, baina aurrekoekiko alde esanguratsuekin.



Agerpen kopuru hori diziplinaka ere aletu dute. Beraien datuen arabera, musikaren sorkuntzan aritzen direnak dira kultur gile gehienak (2.032). Gainera, agerpenetan ere beraiek dira nagusi, nabarmen gainera (15.248). Kopurutan, horien atzetik daude literatura, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, antzerkia, bertsolaritza eta abar. Agerpenei dagokienean, berriz, ikus-entzunezkoak dira bigarren; literatura, bertsolaritza, arte plastikoak eta antzerkiak jarraitzen diete, ordena horretan.

Ikertu dutenez, hedabideka arte diziplina bakoitzak tarte ezberdina jasotzen du. Ehunekotan kalkuluak egin ostean, bertsolaritzan eta zinema/ikus-entzunezkoetan «desbideraketa» nabarmenak hautematen dituzte. Adibidez, bertsolaritzan Kazetaren proportzioa nabarmen handiagoa da besteekiko. Zinema/ikus-entzunezkoetan, berriz, NAIZen gaztelaniazko edukietan ere proportzioa handiagoa da besteetan baino; aldiz, bertsolaritzan txikiagoa da.

## 2.4. EUSKARAZKO KULTURGILEAK ZENBAT AGERTZEN DIRA?


Ikerlarien ustez, desoreka horiek ez dira ausazkoak: «Hedabideen hizkuntza eta kultur gilearen diziplina aldagaiak daukaten harremana estatistikoki adierazgarria da». Horren lekuko, elebitan aritzen diren hedabideen artean, hizkuntza batean edo bestean egin alde nabarmenak sumatzen dituzte (EiTBn salbu, web orrian ia eduki bera lantzen baitute bi eletan).

Hori kontuan izanik, hizkuntzaren aldagaiaren arabera azterketa egin dute. Beraien datuen arabera, euskara hutsean jarduten duten Euskal Herriko kultur gileak %34,6 dira. Euskara eta erdara darabiltenak, berriz, %12,9. Heren batek (%33,3) hizkuntzarik gabe sortzen du eta %19,2k, erdaretan.

Hedabideka kultur gile horien presentzia ez da berdina. Beraien datuen arabera, «euskara hutsean sortzen duen kultur gile gehiago dago euskara hutsezko hedabideetan». Horietan proportzioa 6/10 da gutxi, gora-behera (euskara hutsez sortzen dutenak %44,8, euskaraz zerbait sortzen dutenak %58,9); hedabide elebidunetan, berriz, 4,5/10 da (euskara hutsez sortzen dutenak, %32,5, euskaraz zerbait sortzen dutenak, %45,4).

Agerpen kopuruari dagokionean ere aldea dago. Euskaraz zerbait sortzen dutenak gehiengo ez badira ere, gehiago agertzen dira proportzionalki. Ikerketaren arabera, hori bereziki agerikoa da euskara hutsezko hedabideetan. Horien kasuan, euskarazko kultur gileak 10etik 6 izanagatik, agerpen maila %74,4ra igotzen da. Elebidunetan ere gora egiten du, 10etik 4,5 badira ere %52,6 aldiz agertzen baitira. Alabaina, ikerlariak azpimarratzen dutenez, «portzentajeko 22 puntuko aldea dago bien artean». Gainera, tarte handiagoa edo txikiagoa izan, diziplina guztietan mantentzen da nagusitasun hori.

Azaltzen dutenez, hedabide elebidunen kasuan barne ezberdintasuna gertatzen da: euskarazko kultur-gileak euskarazko edukietan gehiago agertzen dira («euskara hutsezko hedabideen pareko», batzuetan); erdarazkoetan, aldiz, gutxiago. Zehazki, «*eitb.eus* eta *noticiasdenavarra.com* atarien bai euskarazko bai gaztelaniazko edukietan antzeko euskarazko sortzaile kopurua aurkitu da; aldiz, *naiz.eus* eta *diariovasco.com* atarietan euskarazko edukietan euskarazko kultur-gile gehiago dago». Beraien grafikoaren arabera, hori NAIZen da nabarmenena (El Correoren atzetik, noski, hori hedabide elebakarra baita).



\* Gogoratu, elcorreo.com atarian hiru eduki soilik aurkitu dira euskaraz.

Horren lekuko da bertsolaritza, esaterako: «aldea dago bertsolaritzaren agerpen mailan bi eletan aritzen diren hedabideen hizkuntza batean eta bestean: gaztelaniaz argitaratutako edukietan askoz gutxiagotan agertzen dira –eitb.eus salbu, ia eduki bera lantzen baitu bi eletan–». Hori NAIZen eta El Diario Vascon da agerikoena.

## 2.5. NORTZUK AGERTZEN DIRA?

Zenbat ez ezik, nortzuk agertzen diren ere ikertu dute. Horretarako, 2023an agerpen gehien izan zuten 30 kultur-gileak zerrendatu dituzte. Horien artean 14k sortzen dute euskara hutsean (4. postuan ageri da horietako lehena); 21ek, berriz, euskaraz zerbait. Generoari erreparatuta, 12/30 dira emakumezkoak, eta lehen 10en artean 2 baino ez.

Sailkapen horretako lehen 10ei ere erreparatu diete. Grafikoetan ikus daitekeenez, elebidunetan lehen 10etatik 3 dira euskaraz sortzen dutenak; euskaraz hutsezkoetan, aldiz, lehen 10etatik 7. Hortaz, «kopuru eta posizio aldetik» euskaraz sortzen duten kultur-gileei euskarazko hedabideetan presentzia handiagoa ematen zaiela identifikatu dute. Adibidez, «euskaraz gehien agertzen den euskarazko kultur-gilea (Joseba Sarrionandia) elebidunetan hamargarren ageri dena baino gutxiagotan agertu da». Generoa-

ri dagokionean ere, arrakala atzeman dute: «4/10 dira emakumeak euskarazko hedabideetan eta 2/10 hedabide elebidunetan».

Datu horiek hedabideka ere aztertu dituzte. Kazetari dagokionean, lehen 10etatik 10ak dira euskara hutsean sortzen dutenak; 7/10 emakumeak. NAIZi dagokionean, berriz, «aldea dago euskarazko eta gaztelaniazko edukien artean: euskara hutsean sortzen duen kulturgile gehiago agertu da euskarazko edukien sailkapenean (8/10), gaztelaniazkoan baino (0/10); euskaraz zerbait sortzen dutenak kontuan hartuta, euskarazko edukien artean denak dira (10/10) eta gaztelaniazko edukien artean gutxiago (4/10)». Generoari erreparatuta, «4/10 dira emakumeak euskarazko edukien rankingean eta 5/10 gaztelaniazkoetan».



Beraz, ikertzaileen ustez, «elebidunen komunitateak nolabaiteko zubi papera egiten du euskaldun eta erdaldunen artean; halere, erdaldunekin euskaldunekin baino nahastuago dago».

## 2.6. ONDORIOAK

Behin datu guztiak mahai gainean jarrita, azterketaren hiru bertsioetan ondorio ezberdinak atera dituzte. Urriko bertsioan sarreran aipatutako ondorio nagusia plazaratu zuten:

### 1. Euskarazko hedabideek eta elebidunek kultur paisaia ezberdinak irudikatzen dituzte; batzuk trakzionatzalle(ago) eta beste batzuk galga

- > Harreman adierazgarria frogatu da: euskarazko hedabideek euskal kulturgile gehiago agertzen dituzte, diziplina guztietan gertatzen da
- > Elebidunek paisaia ezberdinak:  
**eitb.eus:** ispilu bi bertsioetan  
**naiz.eus, elcorreo.com, diariovasco.com, noticiasdenavarra.com:** euskal kulturgileak ukatu (edo ia karikatura bihurtu)
- > Trakzioa vs galga (gutxienez, neutralizazioa)

Azaro eta abenduko bertsioetan tonua goxatu eta zenbait aldaketa txertatu badituzte ere, ondorio nagusia antzekoa da: «Euskarazko hedabideek eta elebidunek kultur paisaia ezberdinak irudikatzen dituzte; euskaraz argitaratzen diren edukiak dira euskarazko kulturgileen ikusgarritasuna gehien lantzen dutenak». Horren lekuko, «euskaraz hutsezko hedabideek euskal kulturgile gehiago agertzen dituzte, diziplina guztietan gertatzen da hori».

Beraien ustez, «gakoa hizkuntzan dago: euskarazko edukietan euskal kulturgileen presentzia handiagoa agertzen da; baita hedabide elebidunetan ere, euskara hutsekoen pareko agertuta zenbait kasutan. Gaztelaniazko edukietan, aldiz, euskaraz sortzen duten kulturgileen agerpen-maila baxuagoa da».

Hala ere, «gaztelaniazko edukiak lantzen dituzten komunikabide guztietan ez da portaera bera agertu: aztertutako komunikabideen artetik, *eitb.eus* da bere gaztelaniazko edukietan euskaraz zerbait egiten duen kulturgileen agerpen kopuru handiena duena (%64), ondoren kokatzen da *naiz.eus* (%47,2), atzetik *diariovasco.com* (%45,5) eta *elcorreo.com* (%42,7), eta azkena *noticiasdenavarra.com* (%26)».

Ikerketaren arabera, «bada publiko potentzial bat ez dena jasotzen ari (ez zaiolako ematen) euskal kultura». Ezin horretatik abiatuta, «errealitatea aldatu da, gu zer kartografiekin ari gara?» galdetzen dute. Beraien ustez, «duela 40 urteko errealitate eta profil soziolinguistikoen aldaketa batetik, komunikazio ekosistemaren mende berriko etengabeko aldaketen garaia bestetik, edota kategoria berrien premia agerikoa» da, eta horra egokitu behar da, transmisioan eraginkorragoak izateko. Azken batean, «transmititzen ez den kultura ezin da hautatu» eta.

### 3. IKERKETAREN MUGAK ETA AKATSAK

Euskarazko kulturgintzaren transmisio ezak kezkatzen gaitu gu ere. NAIZen azken asteetan argitaratutako albisteak irakurtzea aski da horretarako motiboak egon badaudela jabetzeko: Ipar Euskal Herriko egoerari erreferentzia eginez, «Ez dute gogorik ezer programatzeko euskaraz» zioen Ander Lipus antzezle eta zuzendariak. Xole Aramendi kazetariak, berriz, euskal artisten baldintzei buruzko erreportaje zabala egin zuen berriki, eta honela zioen goiburuan: «Prekariatateak eta ezegonkortasunak baldintzatua da sortzaileen egunerokoa». Zentzu horretan, beharrezkoa da halako ikerketak egitea.

Bide batez, begi onez ikusten dugu horretarako adimen artifiziale erabili izana. Ikerketan jaso den bezala, «euskal kulturaren azterketan lehenbiziko aldiz erabili dira tanketa honetako teknologikoak», eta uste dugu aurrerantzean ere baliatu beharrekoak direla.

Alabaina, ikerketan bertan jasotzen dutenez, ikerketa espezifikoak egitera-koan «prozesu automatikoak bakarrik ez dira nahikoa oraindik ere; horiek eskuzko prozesaketekin konbinatzea beharrezkoa da». Halaber, komeni da «kanpo kontrastea egitea» ere. Gure ustez, hain zuzen, esku hartze horretan egin da huts.

#### 3.1. HEDABIDEEN HAUTAKETA ETA SAILKAPEN NAHAS-GARRIA

Hasteko, datuen bilaketa eta prozesaketarako irizpide eta kategoria desegokiak sortu dira. Lehenik eta behin, NAIZ eta Kazeta bereizten dira ikerketan. NAIZeko web orrian sartzan bazarete, baina, erraz asko topatuko duzue Kazeta, proiektu beregaina izanagatik bere baitan kokatzen baita. Oso-oso oinarritzko akatsa iruditzen zaigu, eta ez dugu ulertzen ikerketaren bertsio eguneratuetan nolatan ez den zuzenketa egin. Ikerketa berriz egin beharko litzatekeelako, akaso? Hala egitea nekeza eta garestia izango da, seguraski, baina ikerketaren lagina okerra bada ezinezkoa da emaitzak zuzenak izatea.

Bide batez, akats horrek honako galdera pizten du: bata bestearen baitan kokatuz gero, Kazetaren eta NAIZen inguruan egiten den balorazioa aldatu egingo litzateke? Datuak aldatu beharko lirateke behintzat, horretan ez dago zalantzarik.

Bigarrenik, hedabide elebidun orotan bezalaxe, NAIZen baitan “eus” eta “es” bereizten dira. Esan dugunez, batean euskarazko ekoizpena hartzen dute aintzat eta bestean gaztelaniazkoa, eta horren araberrako irakurketak egiten dira. Adibidez, honela adierazi zen Azpeitiako aurkezpenean: «Gaztelaniazko bertsioetan euskaraz zerbait sortzen dutenen kopurua eta agerpen maiztasuna oso baxua da euskaraz argitaratzen duten hedabideekin alderatuta» (BERRIA 2024 [41:55 min.]).

NAIZen kasuan, baina, bereizketa zinez zalantzaragarria da, *naiz.eus* web orriaren baitan irakurle guztiei berdina eskaintzen baitzaie. Euskaraz, gaztelaraz, frantsesez edo ingeleraz nabigatu badaiteke ere, ez dago gaztelarazko eta euskarazko bertsiorik, eta, ondorioz, erabiltzaileei ez zaie baka-

erri euskarazkoa edo gaztelaniazkoa ematen. Hortaz, NAIZen euskarazko kulturgileek duten presentzia aztertzerakoan ez dago «NAIZen gaztelaniazko bertsioa» bereizterik, ezta eduki horiek partzialki hartu eta hedabide osoekin alderatzerik ere.

Egiari zor, zeharka bada ere, azaroko eta abenduko bertsioetan aitortu zituzten bereizketa horren mugak: «hizkuntza irizpideen trataera ezberdineko hedabideak daude (adibidez, bi hizkuntzetako bertsioak eskaintzea bi nabigazio hizkuntza aukeran jarrita *-eitb.eus-*, edo euskarazko zein gaztelaniazko edukiak eskaintzea erabiltzaileei haien nabigazio hizkuntza edozein dela ere *-naiz.eus-*, edo euskaraz eduki gutxi gutxi batzuk lantzea atal jakinetan eta euskaraz nabigatzeko aukerarik ez ematea *-elcorreo.com, diariovasco.com, noticiasdenavarra.com-*)». Jarraian esaten denez, «trataera horiek kontuan hartzekoak dira emaitzen irakurketan». Alabaina, emaitzetan trataera horiek ez dira aipatu ere egiten.

Hirugarrenik, ikerketako irizpideak ontzat joko bagenu ere, «eus» eta «es» bereizketa ez da aski. Izan ere, «fr» ere bereizi beharko litzateke, NAIZen barruan nagusiki frantsesez argitaratzen duen Mediabask egunkaria ere bai baitago. Horri lotuta, euskarazko hedabideen eta hedabide elebidunen arteko bereizketa eta horren araberrako multzokatzeak ere ez dira guztiz zuzenak. Batetik, NAIZ «elebidun/gaztelaniazkoa» kategorian sailkatzea okerra da, NAIZ elebiduna beharrean hirueleduna delako. Bestetik, elebidun gisa sailkatutakoetako bat, El Correo, gaztelaniazko elebakarra da (hain zuzen, El Correoren kasuan horregatik ez dute «eus» eta «es» bereizten). Txikikeria bat irudi lezake, baina hedabide bakoitzaren mapa eta paisaia nazionala adierazten du horrek.

Laugarrenik, tokikoak eta jeneralistak diren hedabideak batera aztertu dira. Gure ustez, horrek nahastea sortu dezake, batzuen eta besteen unibertsoak oso ezberdinak izaten baitira. Adibidez, kulturgile afganiar batek tokiko hedabide batean normalean ez du aparteko interesik sortuko, bertakoa ez bada edo bertan emanaldirik ez badu behintzat; aldiz, hedabide jeneralistentzat interes bizikoa izan daiteke.

Gainera, ikerketan bereizi dituzten bi multzoen artean desoreka nabarmena dago: euskarazko hedabideen kasuan, hiru jeneralistak dira eta hiru lokalak; hedabide elebidunei dagokienean, berriz, bostak jeneralistak dira, nahiz eta denak ez diren Euskal Herri osokoak. Horrek are gehiago aldrebestu ditzake emaitzak.

Ondorioz, hedabideen hautaketa eta sailkapena nahasgarria da: NAIZ eta Kazeta bereizten dira, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak banatu, «elebidun/gaztelaniazkoak» kategoriapean hedabide hirueledun eta elebakarrak multzokatu, tokikoak eta jeneralistak bateratu... Zimenduetan bertan dago arazoa<sup>1</sup>.

1. Hori kontuan izanik, bestelako irizpide batzuk ere aukeratu zitezkeen: tokikoak-jeneralistak, euskaltzaleak-espainolistak, euskararen presentziaren portzentajeen arabera...

### 3.2. KULTUR EDUKI GEHIENA KANPOAN UTZI DA

Hortik abiatuta, hedabideen kultur edukia aztertzeko erabilitako erreferentzia (hedabide horien web orrietako “Kultura” atala) ere ez da nahikoa. Zergatik? Hori azaltzeko pauso bat atzera egin behar dugu.

Ikerketan bertan jasotzen den bezala, digitalizazioaren eraginez albisteei lotutako ohiturak eta erreferentziak errotik aldatzen ari dira azken hamarkadan. Inkesta argigarri bat aipatzen dute hori azaltzeko. 2019an CIESe Hego Euskal Herriko herritarrei pasatako inkesta baten arabera, «hamar euskal herritarretatik zortziren ohiturazko hedabide zen ordurako prentsa digitala (%83) eta ia erdiaren lehentasunezko aukera (%44)». Ikertzaileek ondorioztatzen dutenez, «hedabide digitalak gailentzen» ari dira, eta agidanez, horrek ez du atzera bueltarik.

Joera hori aurrez ere antzemanda zuen NAIZe (hain zuzen, NAIZen sorrera bera horren adierazle da). Zentzu horretan, azken hamarkadan zehar egoerari aurrea hartu eta antolaketa goitik behera eraldatzen ahalegindu da. Sinple azalduta, aurretik papera zen erreferentzia nagusia. Edukiak hor argitaratzeko ekoizten ziren nagusiki. Behin hala eginda, web orrira eramaten zen, ahalik eta gehien zabaltzeko. Web orria ere horko atalen arabera egituratuta zegoen, ezinbestean: Euskal Herria, Ekonomia, Kultura, Nazioartea... Herritarren artean prentsa digitala lehentasunezkoa bilakatu ahala, baina, gure egiteko moduan paradigma berria nagusitu da: “Digital first”. Horren baitan, NAIZ bilakatu da aterki komun eta nagusia. Horra ekoizten da. Behin hala eginda, eduki hori agerkari ezberdinetan zabaltzen da: GARA, 7K, GAUR8, NAIZ Irratia....

Horrek atalen antolaketa errotik aldatu du. Lehen “Ekonomia” atalean kontzentratzen zen ekonomiari lotutako eduki guztia; “Kirolak” atalean kiroltako guztia... eta noski, “Kultura” atalaren kultur eduki guztia. Paperean ekoizten zen, eta gero web orrira bideratzen zen. “Digital first” paradigmaren baitan, ordea, logika bestelakoa da: kultur edukiak NAIZeko unibertsoaren baitan ekoizten dira, atal ezberdinetan (“Kultura”, “Kultur agenda”, “Musika”, “NAIZ Irratia”...); ondoren, horietako batzuk paperezko agerkarietan zabaltzen dira<sup>2</sup>.

2. Agerkari bakoitzak logika propioa du, noski. Mediabask eta Kazeta elkarlotutako egitasmo beregainak dira eta web orri propioa ere badute, esaterako (mediabask.eus eta kazeta.eus). GAUR8k, NAIZ Irratiak eta NAIZ Musiak ere badute web orri berezitua, baina izenean bertan NAIZ agertzen da (gaur8.naiz.eus, irratia.naiz.eus eta musika.naiz.eus). GARAK, 7Kk eta Bidaiarik, azkenik, ez dute web orri propioirik. Edozein kasutan, web orri eta agerkari horiek denak NAIZe lotzen ditu, eta naiz.eus-etik joan daiteke horietara guztietara.

NAIZeko web orrian sartu eta ezkerreko menuan klikatuz gero argi ikus daiteke mapa hori:



Hori kontuan izanik, azterketa hedabideen “Kultura” atalera mugatzean NAIZeko kultur-paisaiaren ehuneko handiena azterketatik kanpo uzten da. Aurreko irudia aztertu besterik ez dago. NAIZeko web orrian murgildu eta “Kultura” atala klikatuz gero ere segituan antzemango dugu hori: bertan GARA egunkarian argitaratutako kultur edukiak daude, nagusiki. Alabaina, NAIZeko unibertsoa askoz ere zabalagoa da, eta kultur edukirik gehiena hortik kanpo barreiatuta daude.

Lehenik eta behin, irizpide horren arabera GARAn ekoiztako asko ere ez da jasotzen. Adibidez, Unai Iturriaga “Zugazart” kultur gile ezagunak egunero-egunero egiten duen bineta bazter uzten da.

Segitzeko, “Kultur agenda” atal guztia kanpo uzten da. NAIZen baitan atal propio bat eskaintzen zaio horri, “asteburuko kontzertuak”, “musika”, “antzerkia” eta “erakusketak” azpiatalekin. Euskal Herri luze zabalean eskaintzen diren sorkuntza lanei ikusgarritasun handiagoa ematea da helburua. Agendako iragarpen bakan batzuk “Kultura” atalera pasatzen badira ere, oso gutxi dira, erabiltzaileak zuzenean atal horretara joatea baita asmoa. 2023an ere halaxe egin zen. Ikerketan, baina, ikusezina da atal oso hori.

GAUR8ko ekoizpen osoa ere halaxe da. 2007tik hona, larunbatero euskara hutsean 32 orriko astekaria argitaratzen da (zentzu horretan, euskarazko

komunikabideen arteko Hekimen erakundearen parte ere bada). 2023ko aleei gainbegiratu azkar bat emanda euskarazko kulturgile ugari topatuko ditugu bertan, nola elkarrizketatuen artean, hala kolaboratzaileen artean. “Irritzia” atalean lau artistek (Amaia Ballesteros, Exprai, Alai Zubimendi eta Unai Gaztelumendik) bineta egiten dute eta “Pantaila Txikian” atalean zinemako gomendioak egiten ditu Gaizka Izagirrek (tartean, euskarazko sortzaileenak, noski). 2023n Bizkaiko eta Nafarroako Bertsolari Txapelketak izan ziren eta tarte zabala eskaini zitzaion bakoitzari. Herrialdeetako eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa guztietan bezala, finalista guztiei orrialde banako elkarrizketa egin zitzaion eta Unai Gaztelumendik guztien aurpegiekin osatutako bi irudi eder ondu zituen<sup>3</sup>. Aitzitik, hori “Kultura” atalean beharrean “Gaur8” estekan dagoenez, hori dena albo batera utzi da ikerketan.

Bestalde, 7Kn astero ekoiztutako guztia ez da aztertu. 2023ko aleen azalei erreparatzea nahikoa da ikusteko euskarazko kulturgileen presentzia zabala izan zela bertan: Eñaut Elorrieta, Huntza, Garazi Arrula, Jon Maia, Xabier Mendiguren... Bakoitzari zortzi orrialdeko elkarrizketa egin zitzaion, argazki ederrekin atonduta. Euskal Herrian ekoizten den igandekari bakarra izanik, beste hainbat erreferentzia ezagun topatuko ditugu kolaboratzaileen artean ere. Bi astez behin, euskarazko liburu gomendioa ere egiten da. NAIZeko “Kultura” atala klikatuz gero, ordea, aipatutako elkarrizketa edo kolaborazio bat bera ere ez dugu topatuko. Ondorioz, ikerketan ez da aintzat hartu.

Eta zer esan NAIZ Irratian ekoiztutakoaz! Egunero-egunero 24 orduz euskaraz hutsez aritzen dira. Eta, beste kontu askoren artean, kulturgintzan espezialistak dira. Euskarazko kulturgileei espazio zabala eskaintzen zaie saio ezberdinetan. 2023an ere halaxe izan zen.

Hasteko, musikak eta musikariek sekulako protagonismoa dute: MusikHaria saioan aste-egun guztietan aritu ziren musikaz, eta astean gutxienez bi aldiz euskarazko musikariren bat elkarrizketatu zuen Iker Gurrutxagak. Bigarren Kafea saioan, berriz, euskarazko kulturgile ezberdinei elkarrizketa akustikoa egin zioten astean behin. Horrez gain, musikaren inguruko hainbat saio espezializatu egin ziren: Burdinola metal saioa; Global Musik, munduko musikaz eta “uzta nafarraz”; Reggae Fever reggae saioa; Sateliteak elektronika saioa; Beste Bat saioa, Euskal Herriko musikariek beraiek egin...

Horri guztiari behar bezalako oihartzuna emateko, “Musika” atal propio bat dago NAIZen, audioekin eta testuekin. Hor biltzen da aipatutako eduki guztia, eta horko eduki batzuk baino ez dira “Kultura” atalera atxikitzen. 2023an ere halaxe zen. Hala ere, atal hori “Kultura” ataletik kanpo kokatuta dagoenez, ikerketan ez dira kontuan hartu aipatutako saio eta eduki gehienak. Gure ustez, guztiz ulergaitza da; are ulergaitzagoa kontuan izanik identifikatutako kulturgileen artean «gehlenak» musikaren sorkuntzan aritzen direla, ikertzaileen esanetan. Hautu horren ondorioz kulturgile gehienek inguruan NAIZen egin den gehiena bazter utzi da.

Kulturgintzan eta NAIZ Irratian dena ez da musika, jakina. Horrez gain, euskarazko kulturgileei eskainitako bestelako saioak ere badaude.

3. 2023an taldekako Xilaba Bertsolari Txapelketa ere egin zen. Taldekakoa zenez, baina, ez zen finalisten elkarrizketa eta irudirik egin. Bakarkakoa izango balitz egingo zatekeen.

2023an, Garazi Castañoren eskutik, egunero ordubetez “KulturHaria” egin zen irailera arte. Bertatik pasa ziren Eneko Barberena, Elena Olave, Edurne Azkarate eta beste hainbat. Irailetik aurrera, Oihana Azkuek gidatutako “Paraleloan” saioak hartu zion lekukoa, eta urtea amaitu artean artista ugari pasa ziren bertatik ere: Pako Sagarzazu, Goiatz Labandibar, Ainhoa Gutierrez eta Olatz Gonzalez... batean zein bestean azpimarratzekoa da diziplinen aniztasuna.

Bertsolaritzari ere tarte zabala eskaini zitzaion irratian. Xilabako, Nafarroako eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketen inguruko zenbait albiste eta analisi egin ziren. Horrez gain, 2023an urrats kualitatiboa eman zen. Izan ere, martxoan “Kontatzera noazu” saioa abiatu zuten Eli Pagola eta Andoni Re-kondo bertsolariek. Jakintzaz eta mimoz, orduaz geroztik bertsolaritzaren inguruko gogoetak eskaintzen dituzte astero.

Zineaz ere aritu ziren 2023an. “Bideokluba” saioa gidatu zuen Maite Bidartek, ikus-entzunezkoetan arituak eta adituak diren beste hainbat kolaboratzaileekin batera. Hamarnaka pelikula eta serieren artean, besteak beste, Zinema festibalean estreinatu ziren euskal film laburren errepasoa ere egin zuten. Aimar Erkiagak, berriz, hainbat zine gomendio egin zituen. Tartean, noski, euskarazko film eta ekoizleenak ere bai: Paul Urkijoren ‘Ira-ti’... Ikerketan hau dena ere ez zuten aintzat hartu, ordea.


Mediabasken ekoiztako kultur edukiak ere nabarmendu beharrekoak dira. NAIzentzat, Kazetarekin batera, Ipar Euskal Herriko erreferentziazko hedabidea da. Gehiena frantsesez ekoizten du, eta euskarazko kultur gile andana agertu ziren 2023an zehar: Itxaro Borda, Asisko Urmeneta, Amets Arzallus, Maider Cigarroa... Xilaba Bertsolari Txapelketaren aitzakian bertsolarien berri ere eman zuten. Alabaina, ikerketan honakoa ere ahanzturan geratu da. Ondorioz, NAIZek Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan ekoiztako kultur eduki ia guztia NAIZen azterketatik kanpo utzi da. Paisaiaren murrizpen itzela, zalantzarik gabe.

Horiek adibide batzuk baino ez dira (denak ere ikerketarako irizpide guztiak betetzen dituztenak, salbu eta “Kultura” atalean sailkatuta egotea). Muga horien jakitun, ikerketaren azaroko eta abenduko bertsioetan oinoharra gehitu dute, honakoa argituz: «Ikerlan honetan soilik ‘kultura’ atala kontuan hartu denez gero, hor bada alborapen bat, ez da aztertutako hedabideen kultur ekoizpen guztia ikertu». Esaterako, aitortzen dutenez, NAIZek «musikaren inguruko aparteko atal propioa eta kultur edukiak markaren beste agerkari batzuetan argitaratzeko lan planteamendua ditu». Hala ere, eutsi egiten diote irizpideari: «Atari digitalak nabigatzera-koan ‘kultura’ atala bada erreferentzia eta, beraz, azterketarako adierazgarri zein erkagarri».

Gu ez gatoz bat: erreferentzia horren bidez kultur agendako eta musikako atal oso bana, eta 7Kn, GAUR8n, NAIZ Irratian eta Mediabasken ekoiztako kultur eduki ia guztiak albo batera uzten badira, irizpide horrekin soilik ezin da NAIZeko kultur edukia aztertu. Atal horrez gain, beste batzuk ere hartu beharko dira aintzat. Ikerketan esaten den bezala, errealitatea aldatu bada, kartografiak eta kategoriak ere berritu egin beharko baitira<sup>4</sup>.

4. Horri lotuta, hurrengo ikerketan beste irizpideak ere osatzea interesgarria izango litzateke. Adibidez, hedabide digital horietan agertzen den testua aztertzeaz gain, interesgarria izango litzateke ikusi eta entzuten den guzti hori ere aintzat hartzea, hedabide digitalak ikus-entzunezko iraultza egiten ari baitira. Bestalde, ikerketan esaten den bezala, behin baino gehiagotan ateratzen diren Euskal Herriko 5.637 kultur gileez gain, aberasgarria izango litzateke behin ateratzen diren kultur gileen presentzia ere aztertzea, ez baita berdina hedabide batek espazioa kontsolidatuta dauden kultur gileei bakarrik eskaintzea edo hasiberrientzat ere plaza izatea. Adibidez, 7Kn Ber-garako Idazle Eskolan parte hartzen duten ikasleei ipuinak argitaratzeko bi orrialdeko tartea eskaintzen zaie udara guztietan. Astero argitaratzen dituzte, Kristina Fernandez ilustratzailearen irudi banarekin lagunduta. 2023an ere halaxe izan zen, baina ikerketan ez da aintzat hartzen. Azkenik, komenigarria litzateke azterketa kuantitatiboa kualitatiboarekin osatzea: aipatutako kultur gileak nola lantzen dira? Ez baita berdina albiste solte batean agertzea edo zortzi orrialdeko elkarriketa egitea.

Gainontzean, datu orokorrak ere okerrak ateratzen dira. Horren adibide nagusietako bat bertsolaritza da. Urriko bertsioan eskainitako datuen arabera, hedabide elebidunetan honakoa da bertsolarien agerpen kopurua:



Sinesgarria da halako ezberdintasuna? Horren arabera, El Diario Vascon egunean ia bost bertsolari agertzen dira; NAIZen bi baino gutxiago eta EiTbN bat baino gutxiago. Grafikoari beste ertz batetik begiratuta, El Diario Vascon NAIZen eta EiTbN batera baino askoz bertsolari gehiago agertzen dira (ia bikoitza!). Bistakoa da diferentzia hori ez dela zuzena. Azaroko eta abenduko bertsioetan kopuruetan beharrean portzentaiaetan jarri dute arreta, eta aipatutako grafikoa ordeztu egin dute. Alabaina, portzentaje horiek urrian plazaratutako datu okerrean oinarritzen dira.

### 3.3. INTERPRETAZIO ETA ONDORIO MURRIZTAILEAK

Aztergaiaren ehuneko handiena azterketatik kanpo utziz gero, gure ustez ezin da emaitza zuzenik atera, ezta halako tesi orohartzailerik ondorioztatu ere. Edozein kasutan, ondorioei ere erreparatu nahi genieke, esanguratsuak iruditu baitzaizkigu.

Hasteko, horiek irakurriz gero, euskarazko hedabideak eta hedabide elebidunak bi zaku berezitu eta identikoak direla dirudi. Gure iritziz, errealitatea bestelakoa da. Batetik, «elebidun» gisa sailkatutakoetako bat elebakarra da (El Correo) eta NAIZ hirueleduna. Bestetik, denetan berdina al da trataera? Zehatzago esanda, El Correo, El Diario Vasco, Diario de Navarra eta NAIZen euskarazko kulturgileek duten presentzia berdina al da? Hortik paisaia eta titular amankomun bat identifikatu daiteke? Guri forzatua iruditzen zaigu<sup>5</sup>.

Murritzpen horrek ondorio okerrak ekartzen ditu, gainera. Adibidez, ikerketan deitoratzen denez, «euskarazkoetan gehien agertzen den euskarazko kulturgilea (Joseba Sarrionandia) elebidunetan hamargarren ageri dena baino gutxiagotan agertu da; hau da: eskala txikiagoan aipatzen dira euskarazko kulturgileak». Jakina denez, baina, Joseba Sarrionandia NAIZeko

5. Bestalde, euskarazko hedabideen artean ere euskarazko kulturgileen presentzia berdina al da? Zehatzago esanda, Berria, Argia, Alea, Anboto, Goiena eta Kazetako paisaia berdina da? Jeneralisten eta tokikoen artean, esaterako, zeintzuk dira ñabar-durak eta ezberdintasunak? Zeintzuk dira erronkak? Gure ustez, aberasgarria izango litzateke horri lotutako ondorioak ere aurkezte, ahalik eta irakaspen gehien ateratzeko.

ohiko kolaboratzailea da. Ikerketako datuen arabera, 2023an Berria-ren atzetik NAIZen agertu zen gehien (kanpoan utzitako edukia aintzat hartuz gero –Kazeta, GAUR8, 7K, Irratia...– NAIZen Sarrionandiak izandako agerpen kopurua are handiagoa izango da, zalantzarik gabe); Anboton salbu, ikertutako gainontzeko hedabide guztietan lehen hamarretan ez da agertu ere egiten. Hala ere, aipatutako analisian euskarazko hedabideak eta elebidunak bereizi eta NAIZ elebidunen zakuan sartzen da, zer eta “elebidunek” (tartean NAIZek, noski) Sarrionandia eta beste euskarazko kultur-gileak «eskala txikiagoan» aipatzen dituztela ondorioztatzeko. Zuzena al da? Bistakoa da ezetz. Kategorizazio horrek errealitatea azaldu beharrean desitxuratu egiten du.

Hortik abiatuta, ez dira edozein moduko ondorioak atera. «naiz.eus, elcorreoo.com, diariavasco.com, noticiasdenavarra.com» hedabideek, euskal kultur-gileak «ukatu» edo horien «ia karikatura» egiten omen dute. Hitz gogorak dira, alajaina. NAIZen kasuan, behintzat, ez da zuzena, euskal kultur-gile ugariaren plaza ere bai baita. Elkarriketa eta albiste bidez espazio zabala eskaintzeaz gain, askok iraunkorki kolaboratzen dute bertan. Pentsa, kultur saio batzuk diziplina horretako kultur-gileek beraiek gidatzen dituzte. Kultur-gileak ukatu eta karikaturizatzeko era kuriosoa, inondik ere.

Erantzun hori ez da aski, ordea. Izan ere, ikerketaren arabera, arazoa ez da horrenbeste euskarazko kultur-gileek hedabide «elebidunetako» euskarazko edukietan duten presentzia. Aitortzen denez, «zenbait kasutan» «euskara hutsekoen pareko» agertzen dira, eta, zalantzarik gabe, NAIZ da kasu horietako bat. Ikerketan diotenez, «gaztelaniazko edukietan, aldiz, euskaraz sortzen duten kultur-gileen agerpen-maila baxuagoa da», eta, itxura denez, hortxe bertan datza korapilo nagusia. Horren aurrean, hedabide elebidunetan euskarazko eduki guztiak gazteleraz ere jarri beharko liratekeela iradokitzen da (bereziki urriko bertsioan). EITBk, esaterako, horixe egiten du web orrian, eta ikerketako emaitzak aztertuz gero, hedabide elebidunen kasuan portaerarik egokiena eta «orekatuena»<sup>6</sup> hori dela dirudi, «ispilu» lana egiten baitu (horregatik ez da agertzen ukatzaileen zerrendan).

Egiari zor, arazoaren diagnostikoa deigarria iruditzen zaigu, normalean justu kontrakoa egozten baita: euskaraz sortzen duten kultur-gileen lanak gaztelaniaz edo frantsesez gehiegi agertzea. Pentsa, zenbait kasutan euskarazko kultur-gileek beraiek ere eskatu izan digute gazteleraz edo frantsesez ez zabaltzeko. Diagnostiko horrek, gainera, egoera paradoxikoa sortu dezake: adibidez, NAIZen azterketara Kazetako edukiak eta “Kultura” ataletik harago euskaraz egiten den guzti hori gehituko balira, gaztelaniazko edukietan euskaraz sortzen duten kultur-gileen agerpen-maila are baxuagoa izango litzateke proportzionalki. Hala, NAIZi euskarazko kultura are gutxiago ematea egotziko litzaioke. Horra hor, beraz, kontraesana: euskara hutsezko hedabideen kasuan balioan jartzen dena hedabide “elebidunetan” zigortu egiten da.

Soluzioa, berriz, ez zaigu eraginkorrena begitantzen, ez behintzat NAIZi dagokionean. Euskara egoera diglosikoan egonik, gure ustez ezinbestekoa da euskarazko unibertso propio bat pixkanaka-pixkanaka egituratzea. NAIZen bertan ere horretarako apustua egin dugu, eta web orriaren baitan euskara

6. «Orekatuena» aurkezpenean adierazi zen (BERRIA 2024 [49: 40 min.]).

hutsezko edukiak eta agerkariak ere badaude. Alabaina, ikerketan iradokitakoari segika, horietan euskarazko kulturgintzari lotutako eduki guztiak NAIZen gazteleraz edota frantsesez ere jarri beharko genituzke? Ispilu lan hori egitea ote da biderik eraginkor eta orekatuena? Gu ez gatoz bat. Gure xedea, egungo errealitatea ispilatzea baino, eraldatzea da.

Hori kontuan izanik, NAIZen kasuan behinik behin, auzia ez da euskarazko kulturgileei lotutako eduki guztiak gazteleraz eta frantsesez ere plazaratuko ditugun edo ez, baizik eta zer bai eta zer ez? Eta egitekotan, nola? Hitzez hitz itzulita, titularra soilik, albiste berezitua...? Eta gazteleraz edota frantsesez ez ezik, zer hizkuntza gehiagotan? Euskal Herrian presente dauden beste hizkuntzetan ere egitea komeni da?<sup>7</sup> Ikerketaren azaroko eta abenduko bertsioetan esaten den bezala, hautua ez da erreza: «Euskaraz soilik emateak, hedabideak euskaraz kontsumitzen ez dutenak informaziotik kanpo uztea eragin lezake (nahiz eta euskal kulturgintzarako publiko potentziala diren); erdaraz emateak, ordea, euskaldunen artean (euskarazko kazetarien eta euskarazko irakurlearen artean) erdara sartzea eragin lezake». Zentzu horretan, aipatutako bertsioetan mahai gaineratutako galdera («zein hizkuntzatan komeni da euskal kulturgintzaren berri ematea?») urriko ebazpena baino interesgarriagoa iruditzen zaigu.

Bestalde, «gure komunikabideak, batez ere elebidunak, kanpoko kulturen zabaltzaile» direla gaitzesten da urriko bertsioan. Ikerketan esaten dutenez, «Euskal Herriko kanpoko kulturgileak ezabatu egin dira» analitik, «ez baitaio LLMari horiek identifikatzeko eskatu eta, beraz, zarata kontsideratu behar dira analisisirako». Analitik kanpo utziagatik, baina, hori lotutako ondorioa plazaratu dute. Beraz, ondorio hori analisisiaz haragokoa da? Analisisian ez bada, zertan oinarritzen da? Bide batez, zalantza sortzen da: kanpoko kultura zabaltzea txarra da bere horretan? «Zabaltzaile» izenondoak hala ematen du aditzera. Ez ote daiteke izan munduarekin elkarriketan gurea aberasteko modu bat? Gure ahalegina horixe da, behintzat.

Azkenik, «hedabide elebidunak» (tartean NAIZ) «galga» direla adierazi zen urriko bertsioan eta horren aurkezpenean. Galga, definizioz, balazta da: «Ibilgailu edo tresna bat geldiarazteko edo haren abiadura moteltzeko tresna», Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera. Beraz, NAIZeko langileok «sakatuko» ez bagenu (hots, gure jarduna egingo ez bagenu) euskal kulturgintzak eta kulturgileek abiada biziagoa izango luketela adierazi nahi zen? Espero dugu ezetz, eta pozten gaitu azaroko eta abenduko bertsioetan bestelako kontzeptuak aukeratu izanak. Izan ere, nahi baino motelagoak izango gara, beharbada, baina moteltzaileak ez.

### 3.4. ONDORIOAK

Azpeitiko aurkezpenaren ostean, «Hau esateko hainbeste ikerketa behar al zen?» galdetzen omen zien entzuleetako batek ikertzaileei. Aurretik «agerikoak ziren intuizioak» datutan frogatzen omen ziren ikerketa honekin. Halaxe kontatu zuten ikertzaileek hedabideei egindako aurkezpenean. Urriko bertsioaren ondorioetan ere esplizituki jasotzen da: «Ebidentzia bat mahai gainean jartzeko ahalegina egin dugu, lehen hurbilpen bat; baina uste dugu badela ekarpen esanguratsu bat».

7. Galdera horiek eta bestelakoak ahalik eta erarik eraginkorrean erantzuteko asmoz, hizkuntza-estrategia eraberritzeko gogoeta prozesu betean dago NAIZ.

Gure ustez, hain zuzen, horixe bera da arazoa: aldeztatik ezarrita zeuden zenbait «ebidentzia», intuizio edota aurreiritzi berresten dituela ikerketa honek; NAIZi dagokionean, behintzat, hala da. Balizko ebidentzia hori, ikerketaren ordaina beharrean, ikerketaren abiapuntua da, «hurbilpen» eta «ekarpen» ezberdinen bidez frogatzen «ahalegindu» nahi dena.

Intuizioak eta errealitatea ez dira beti bat etortzen, ordea, eta NAIZen euskarazko kulturgintzaren protagonismoa oso esanguratsua izan da sorreratik bertatik. Erakutsi dugunez, baina, ikerketa honek ez du inondik ere islatzen: zimendu nahasgarriak planteatzeaz gain (NAIZ eta Kazeta bereizi, hedabide hirueledunak eta elebakarrak elebidun bezala multzokatu, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak banatu, tokikoak eta jeneralistak bateratu...), NAIZeko paisaia euskarazko kulturgileek duten presentziaren ehuneko handiena ez da jasotzen (7Kn, GAUR8n, NAIZ Irratian eta Mediabasken egindako ia dena, NAIZeko “Kultur agenda” eta musikako atal osoa eta Kazetan egindako guztia, besteak beste). Horrela ezinezkoa da emaitza eta ondorio zuzenik ateratzea. Are ezinezkoagoa halako baieztapen kategorikoak egitea.

Eta are okerragoa dena, horrela nekeza da egoeraren analisi zuzenak egin eta beharrezkoak diren konponbideak proposatzea. «Ekosistema» bezala pentsatu, debatea «sakon eta patxadaz» egin eta «‘kultura bizia’ gailendu dadin» nahi bada (guk ere halaxe nahi dugu), bestelako oinarriak jarri behar dira.

## BIBLIOGRAFIA:

Aramendi, X. (2025): '*Prekaritateak eta ezegonkortasunak baldintzatua da sortzaileen egunerokoa*', GAUR8, 2025/01/25 ([https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8\\_2025-01-25-06-00/hemeroteca\\_articles/prekaritateak-eta-ezegonkortasunak-baldintzatua-da-sortzaileen-egunerokoa](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2025-01-25-06-00/hemeroteca_articles/prekaritateak-eta-ezegonkortasunak-baldintzatua-da-sortzaileen-egunerokoa)).

BERRIA (2024): '*Sormenean hezi, kulturen bizi / Azterketaren emaitzak*' (<https://www.youtube.com/live/E-Ou-G6XO4A>).

Lipus, A. (2025): '*Ez dute gogorik ezer programatzeko euskaraz*' [Goizeder Tabernak elkarrizketatua], Kazeta, 2025/02/26 ([https://www.kazeta.eus/eu/info\\_kz/20250226/ander-lipus-ez-dute-gogorik-ezer-programatzeko-euskaraz](https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20250226/ander-lipus-ez-dute-gogorik-ezer-programatzeko-euskaraz)).

Mimenza, L.; Burreso, N.; Martinez, A. (2024a): '*Euskarazko kulturgintzaren presentzia hedabideetan -2024ko urria-*', Behategia, NOR Ikerketa Taldea eta ORAI Adimen Artifizialeko Zentroa.

— (2024b): '*Euskarazko kulturgintzaren presentzia hedabideetan -2024ko azaroa-*', Behategia, NOR Ikerketa Taldea eta ORAI Adimen Artifizialeko Zentroa.

— (2024c): '*Euskarazko kulturgintzaren presentzia hedabideetan -2024ko abendua-*', Behategia, NOR Ikerketa Taldea eta ORAI Adimen Artifizialeko Zentroa.